



BASAURI

Udala • Ayuntamiento



Bandera Berdea

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA
ÁREA DE POLÍTICA CULTURAL Y EUSKERA
JAIK
FIESTAS

1259 /2016 ALKATETZA DEKRETUA

2016ko apirilaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean -61 zenbakiduna- argitaratu ziren **SAN FAUSTOKO JAIK 2016KO KARTEL LEHIAKETAREN** («SENIOR» kategoría) Oinarri Arautzaileak, eta, bertan xedatu bezalaxe, orain lehiaketaren deialdia egitea dagokio.

Horrela, bada, alkate honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikulua eta indarrean dagoen gainerako legeriak aitortutako eskumenak baliatuta, honako hau **XEDATU** du:

LEHENENGOA: Adierazitako kontzeptu hauei aurre egiteko gastua baimentzea, adierazitako partidaren kontura:

Jaietako kartel lehiaketa («SENIOR» kategoría):
1.800,00 €.

2016. 72. 3382. 48099 – T. ARR. FAMILIEI, JAIK.

BIGARRENA: **BASAURIKO UDALAK SAN FAUSTOKO JAIK 2016 IRAGARTZEKO ANTOLATUTAKO KARTEL LEHIAKETAREN** («SENIOR» kategoría) **DEIALDIA ONESTEA**, honako baldintza hauei jarraituta:

1.- Lanak bastidorearen gainean edo luma-kartoiaren muntatuta aurkeztuko dira, eta ez dute beirarik izango. Lanek 70 cm-ko altuera eta 50 cm-ko zabalera izango dute.

Gainera, egileak lanaren kopiarekin CD bat erantsiko du formatu digitalean 300 ppp-ko gubxieneko bereizmenarekin eta 50 x 70 cm-ko tamainarekin.

2.- Gaia artistak hautatuko du, baina iragarri nahi diren jaiekin harremana izan beharko du. Laneari zingoa da jarrera homofoboaren, xenofobaren, ez

DECRETO DE ALCALDÍA Nº 1259/2016

De acuerdo con las bases reguladoras del **CONCURSO DE CARTELES FIESTAS SAN FAUSTO 2016** (categoría «SENIOR») publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 61, de 1 de abril de 2016, corresponde ahora realizar la convocatoria del concurso con el fin de elegir el cartel que anunciará las fiestas de San Fausto 2016.

Desde esta Alcaldía y en virtud de las competencias que le otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y demás legislación vigente se **DISPONE**:

PRIMERO: Autorizar el gasto por los siguientes conceptos y con cargo a la partida que se indica:

Concurso carteles fiestas (categoría «SENIOR»):
1.800,00 €.

2016. 72. 3382. 48099 – T. CORR. A FAMILIAS FESTEJOS

SEGUNDO: Aprobar la **CONVOCATORIA DEL CONCURSO DE CARTELES** (categoría «SENIOR»), **ORGANIZADO POR EL AYUNTAMIENTO DE BASAURI, CON EL FIN DE ELEGIR EL QUE ANUNCIARA LAS FIESTAS DE SAN FAUSTO 2016**, de acuerdo con las siguientes condiciones:

1.- Los trabajos serán presentados montados sobre bastidor o cartón pluma y sin cristal. Las dimensiones de la obra serán de 70 cm. de alto, por 50 cm. de ancho.

Además el autor o autora adjuntará un CD con una copia de la obra en formato digital con una resolución mínima de 300 ppp y un tamaño de 50 X 70 cm..

2.- El tema se deja a elección del artista, si bien habrá de tener relación con las fiestas que se tratan de anunciar, no pudiéndose incluir en la





hizkeraz, irudi edo eduki sexistaren publizitatea edo horiek bultzatzea bilatuko duen erreferentziarik egin, ez eta edari alkoholiko eta tabakoaren erreferentziarik ere, Udalak gaiari buruz onartutako araudiarekin bat. Ildo horri jarraiki, Epaimahai Kalifikatzaileak araudiaren kontra doazen kartelak lehiaketatik kanpo utz ditzake.

obra ninguna referencia que suponga publicidad o incitación a actitudes homófobas, xenófobas, ni lenguaje, imágenes o contenidos sexistas, así como incitación al consumo de bebidas alcohólicas y tabaco, todo ello de acuerdo con la normativa aprobada al respecto por el Ayuntamiento, quedando facultado el Jurado calificador, a dejar fuera de concurso los carteles que pudieran contravenir dicha normativa.

3.- Kartelek Basauriko logoa eta honako hau jaso beharko dute:

3.- Los carteles, incluirán el logo de Basauri, y llevarán la inscripción

«BASAURIKO JAIK 2016

«BASAURIKO JAIK 2016

San Fausto
Urriak 8 –16 Octubre»

San Fausto
Urriak 8– 16 Octubre»

4.- Lanak jatorrizkoak izango dira.

4.- Las obras deberán ser originales.

5.- Epaimahaiak Jaiak iragartzeko hautatutako kartelaren egileari 1.500,00 euroko saria emango zaio, eta 300,00 euroko akzesita udalerriko diseinurik onenari (aurrekontu-partida: 2016 72.3382.48099 - T. A. familientzat. JAIK)

5.- Se concederá un premio de 1.500,00.- euros al autor o autora del cartel elegido para anunciar las fiestas por el Jurado, y un premio accésit de 300,00.- euros al mejor diseño local.

Sari horiek ezingo dira metatu, eta legez xedatutako atxikipenak izango dituzte. Indarreko legeria betez, sariei PFEZaren atxikipena aplikatuko zaie.

Estos premios no serán acumulativos, y quedarán sometidos a las retenciones legalmente establecidas. En cumplimiento de la legislación vigente, a los premios se les aplicará la correspondiente retención de I.R.P.F.

6.- Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, bere iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko maila artistikoa lortzen ez badute, baita ustekabeko edota ohiz kanpoko gorabeherak hala egitea gomendatzen badute ere.

6.- El Jurado quedará facultado para declarar desierto el Concurso, si se estima que los trabajos presentados, no alcanzan un mínimo nivel artístico, así como en el caso de que circunstancias imprevistas o/y extraordinarias, aconsejaran la no realización del mismo.

7.- Lanak Herritarren Informaziorako Udal Bulegoan aurkeztuko dira, lanegunetan, 08:00etatik 14:00etara, **deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik hasi, eta 2016ko abuztuaren 30era bitarte.**


7.- Los trabajos se presentarán en la Oficina Municipal de Información Ciudadana, los días laborales, de 8:00 a 14:00 horas, **desde el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 30 de agosto de 2016.**

8.- Kartelen atzealdean eta erantsiko den gutun-azalaren kanpoaldean lanaren leloa idatziko da. Aipatu gutun-azalaren barrualdean, berriz, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jasoko dira.

8.-En el reverso de los Carteles, se escribirá el lema de la obra, así como en el exterior de un sobre que irá adjunto, indicando en el interior de dicho sobre, el nombre, apellidos, dirección y teléfono del autor.

9.- Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

9.- El Jurado estará compuesto por los siguientes miembros:





BASAURI

Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

EPAIMAHAIBURUA	Alkatea, edota hark eskuordetutako zinegotzia
EPAIMAHAIKIDEAK	Alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana Herriko Taldeak-en bi ordezkari 2 artista edo teknikari arloan
IDAZKARIA	Kultura Ataleko funtzionario bat

PRESIDENTE	Sr. Alcalde o concejal en quien delegue
VOCALES	1 representante de cada partido político 2 representantes de Herriko Taldeak
SECRETARÍA:	2 artistas o técnicos en la materia 1 funcionario o funcionaria municipal del Departamento de Cultura

10.- Epaimahaia 2016ko irailaren 8an bilduko da udaletxean, goizeko 11:00etan, kartel irabazlea eta akzesita aukeratzeko. Erabakia apelaezina izango da.

10.- El Jurado se reunirá en la Casa Consistorial, el día 8 de Septiembre de 2016, a las once horas, con el fin de elegir el Cartel ganador y el accésit, siendo inapelable el fallo.

11.- Aurkeztutako lan bakoitzeko agiri bat emango da, kartela saritua izan ez bada, berau berreskuratu ahal izateko.

11.- Se entregará un recibo por cada trabajo presentado, que facultará a retirarlo siempre y cuando el cartel no resulte el premiado.

12.- Lan guztiak, kartel irabazleak eta aurkeztutako gainerako kartelak, Basozelai Gizarte Etxean egongo dira ikusgai, urriaren 6tik 20ra bitartean.

12.- Todos los trabajos, los carteles ganadores y el resto de carteles presentados, serán expuestos en el Centro Cívico de Basozelai, entre los días 6 y 20 de octubre.

13.- Saritutako kartelaren egileak, ordainsaririk jaso gabe, karteleko edozein xehetasun edo kolore aldatu beharko du, Epaimahaiak uste badu hala eginda kartelak bere helburua hobeto beteko duela.

13.- El autor o autora del cartel premiado, quedará obligado sin más remuneración a modificar cualquier detalle o color que a juicio del Jurado fuera necesario para el mejor logro del fin a que se destina.

14.- Saritutako kartela Udalaren jabetzapekoa izatera igaroko da, eta komeni zaion moduan eta unean erreproduzitzeko eta banatzeko aukera izango du.

14.- El cartel premiado pasará a ser propiedad del Ayuntamiento, que podrá reproducirlo y distribuirlo en el momento y forma que al mismo convenga.

15.- Lehiaketara aurkeztu eta sarituak izan ez diren lanak HILABETEKO epean berreskuratu ahal izango dira, Basozelai Gizarte Etxeko erakusketa-aretoan. Epea 2016ko urriaren 25ean hasiko da zenbatzen. Data horretatik aurrera, Udala ez da kartelen zaintzaren arduradun izango. Era berean, udala ez da materialak garraiatu, manipulatu, erakutsi, bildu edo antzekoetan izandako kalteen erantzule izango.

15.- Los trabajos presentados a concurso y no premiados, finalizada la exposición, podrán retirarse del mismo lugar de la exposición, del Centro Cívico de Basozelai en el plazo de UN MES, a partir del 25 de octubre de 2016, no respondiéndose de la conservación de los mismos después de esa fecha. El Ayuntamiento no se hará responsable de los daños que puedan recibir los materiales entregados como consecuencia de su transporte, manipulación, exposición, almacenaje o similar.

16.- Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oso-osorik onartzen direla oinarri hauek.

16.- El hecho de participar en el presente concurso implica la aceptación total de las Bases.

HIRUGARRENA: Deialdi hau argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietako batean, baita Basauriko Udalaren argarki-taulan eta webgunean ere.

TERCERO: Ordenar la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal,





BASAURI
Udala · Ayuntamiento



Bandera
Berdea

desde el día de su aprobación hasta el último día de presentación de carteles.

Basauri, 2016ko apirilaren *M(a)*.

Basauri, *M* de abril de 2016.

ALKATEA / EL ALCALDE



Sin. / Fdo. Andoni Busquet Elorrieta

